

BERRIZKO UDALA

XXIV. Kaleko Pintura Lehiaketa XXIV Concurso de pintura al aire libre

2023ko maiatzak 6, larunbata
sábado, 6 de mayo



Eduardo Alsasua Garcia
2022ko pintura lehiaketaren 1.saria
1º premio del concurso de pintura 2022



XXIV. Kaleko Pintura Lehiaketa

Oinarriak

1. PARTEHARTZAILEAK

16 urtetik gorakoak.

2. GAIA

Lanak aire librean egingo dira Berrizko udalerrian eta lehiaketaren egunean bertan. Lanak herriko irudietan oinarrituko dira, hauen aukeraketa erabat librea delarik.

3. TEKNIKAK ETA FORMATUA

Lanak edozein formatutan eta teknikatan egin daitezke. Era berean, edozein material erabil daiteke pintatzeko, baina lanaren euskarriak zurruna izan behar du. Autoreek pintatzeko behar dituzten tresna guztiak eramango dituzte lehiaketara.

4. OBREI ZIGILUA JARTZEA

Euskarriak Berrizko Kultur Etxean, Geltoki kalean, zigilatuko dira lehiaketaren egunean 8:30-9:30 bitartean. Euskarriak lanerako prestaturik aurkez daitezke, baina ez da zirriborro, marrazki edo bestelakorik onartuko euskarriaren gainean.

5. OBREN AURKEZPENA

Lanak, sinatu gabe eta fitxa osatuarekin batera, norberak ekarritako kabaletzetan aurkeztu behar dira Olakueta Plazan 13:30-14:00 bitartean. Sariak banatu ondoren sinatuko dira koadroak.

6. SARIAK

Lehenengo saria.....700 euro

Bigarren saria.....600 euro

Hirugarren saria.....500 euro

Lehenengo sailkatu den berriztarrari 400 euroko saria emango zaio, lehenengo hiru sarituen artean ez badago. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren mende egongo dira sari guztiak; indarrean dagoen legediaren ildotik.

7. EPAIMAHAIA

Epaimahaiaren erabakia eta osaera lehiaketaren egunean bertan jakinaraziko dira, 14:30etik aurrera, Olakueta Plazan. Une horretan, sariak banatuko dira. Epaimahaiak saririk ez ematea erabaki dezake, lanek ez badute kalitate artistiko nahikorik. Epaimahaiaren erabakia aldaezina da eta epaimahaiak oinarriei buruzko edozein zalantza edo interpretazio argi dezake, nahiz eta bere irizpideak lehentasuna izango duen.

8. ERAKUSKETA ETA JABETZA

Lan sarituak 2023ko maiatzaren 8tik 26ra bitartean erakutsiko dira Berrizko Kultur Etxean. Irabazten duten artelanak Berrizko Udalarenak izango dira eta honek izango ditu lanei dagozkien jabetza intelektualaren eskubide ekonomikoak. Gainera, Udalak nahi duen erabilera emango die artelanei, hau da, artelanak erreproduzitu, banatu, hedabide publikoetan zabaltu... ahalko du, egungo edozein medio, euskarri edo formaturen bidez, edo etorkizunean garatuko direnen bidez.

9. OBRAK ITZULTZEA

Saritu gabeko lanak lehiaketaren egunean bertan jasoko dira, sariak banatu ondoren.

10. BESTELAKOAK

Lehiaketa honetan parte hartzeak arau hauek onartzea dakar. Lehiaketaren antolatzaileak aurkeztutako lanak zaintzeaz arduratuko dira, baina lehiaketan zehar edo ondoren egingo den erakusketan gerta daitezkeen kalteen erantzukizunik ez dute izango.

XXIV Concurso de Pintura al Aire Libre

Bases

1. PARTICIPANTES

Podrán participar todas aquellas personas mayores de 16 años.

2. TEMA

Los trabajos deberán efectuarse al aire libre, dentro del municipio de Berriz, el mismo día del certamen. Los trabajos realizados deberán ser sobre motivos del pueblo, siendo estos de libre elección.

3. TÉCNICAS Y FORMATO

Las obras se podrán realizar en formato y técnica libres. Igualmente como base pictórica, se podrá utilizar cualquier material pero el soporte sobre el que la obra se presente habrá de ser obligatoriamente rígido. Los/las autores/as deberán acudir al concurso con los útiles necesarios para llevar a cabo sus trabajos.

4. SELLADO DE LAS OBRAS

Los soportes a utilizar para la realización de las obras habrán de ser selladas en la Casa de Cultura de Berriz, Geltoki kalea nº3, entre las 8:30 y las 9:30 horas del mismo día de la celebración. Los distintos soportes podrán presentarse preparados para trabajar, pero en ningún caso serán admitidos bocetos, dibujos u otras señales sobre dichos soportes.

5. PRESENTACIÓN DE LAS OBRAS

Las obras, sin firmar y con la ficha rellena, deberán entregarse entre las 13:30 y las 14:00 horas en la Plaza de Olakueta y se exhibirán al público sobre los caballetes aportados por cada artista. La firma de los cuadros se realizará una vez fallados los premios.

6. PREMIOS

Primer Premio.....700 euros

Segundo Premio.....600 euros

Tercer Premio.....500 euros

Premio al primer clasificado local, siempre y cuando no se encuentre entre los tres primeros, 400 euros. Todos los premios están sometidos al Impuesto Sobre la Renta de las Personas Físicas, de acuerdo con la legislación vigente.

7. JURADO

Tanto el fallo del jurado, como su composición se harán públicos el mismo día del certamen a partir de las 14:30 horas, en la Plaza de Olakueta, momento en el que se procederá a la entrega de premios. El jurado podrá declarar desierto los premios que considere necesarios, si a su juicio, las obras presentadas no reúnen la suficiente calidad artística. Las decisiones del jurado serán inapelables, quien a su vez podrá resolver cualquier duda, imprevisto o interpretación que se deriven de las presentes bases, prevaleciendo en todo momento su criterio.

8. EXPOSICIÓN Y PROPIEDAD DE LAS OBRAS

Las obras premiadas estarán expuestas del 8 al 26 de mayo de 2023, en la Casa de Cultura de Berriz. Las obras premiadas quedarán en propiedad del ayuntamiento de Berriz, que tendrá todos los derechos económicos de propiedad intelectual inherentes a las mismas, y podrá ejercer libremente todas las modalidades que, a título enunciativo y no limitativo, incluyen la reproducción, distribución, comunicación pública... Por cualquier medio, soporte o formato actualmente conocido o que se desarrolle en un futuro.

9. RETIRADA DE LAS OBRAS.

Las obras no premiadas se recogerán el mismo día del concurso, una vez finalizada la entrega de premios

10. OTRAS CONSIDERACIONES

La participación en este certamen implica la aceptación de todas y cada una de las bases. La organización velará por el buen cuidado de las obras, pero no se hará responsable de los daños que pudieran producirse en las mismas durante el transcurso y posterior exposición.

BERRIZKO UDALA 2023

XXIV. Kaleko Pintura Lehiaketa

XXIV Concurso de Pintura al aire libre

AUTOREAREN DATU PERTSONALAK

IZENA

NOMBRE

ABIZENA

APELLIDO

HELBIDEA

DIRECCION

HERRIA

P.K.

LOCALIDAD

C.P.

TFNOA.

HELEKTRONIKOA

TEL.

C.ELECTRÓNICO

(Orritxo hau moztu eta lanekin entregatuko den sobreak sartu)

(Cortar e introducir en el sobre que se presentará con los trabajos)

